



## **DONOSTIAK EMAKUMEZKOEN KIROLEKO PODIUMAREN GORENEAN JARRAITZEN DU**

Donostia Kirolak urtero egiten duen azterketaren arabera, Donostiak eliteko emakumezkoen kirolean lider den hirietako bat dela berretsi du. 2014tik, txosten honek estatuko kirol lehiaketa nagusietan emakumeen taldeen presentzia aztertzen du (futbola, saskibaloia, eskubaloia, hockeya, boleibola, waterpolo, errugbia, izotz hockeya, softbala, areto futbola, arrauna, curlinga, igeriketa eta atletismoa), hiriak emakumeen kirolaren ikusgarritasunarekin eta garapenarekin duen konpromisoa nabarmentzeko.

Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak nabarmendu duenez, "Donostiak aztertutako 14 diziplinetatik 8tan mantentzen du bere ordezkaritza, eta guztira bederatzi emakumezko talde daude euren modalitateetako maila gorenean. Hor daude Bera Bera eskubaloian, Reala belar hockeyan eta futbolea, Ibaeta (IDK-Euskotren) saskibaloian, Atletico SS atletismoan, Txuri Urdin izotz hockeyan, Txuri Berri curlingean eta nola ez, Donostia Arraun Lagunak eta Donostiarra arraun taldeak. Harrotasun eta hiri-marka handia da gure emakumezkoen kirolaren indarra, urteak baitaramatza goren-gorenean, egiten duten lan handiari esker".

Partaidetza nabarmen horri esker, Donostia estatuko rankingeko hirugarren postuan kokatzen da eliteko emakumezkoen talde kopuru absolutuan, Bartzelonaren (16 talde) eta Madrilen (10 talde) atzetik. Guztira, 84 hiriek dute talderen bat maila gorenean.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Gainera, talde kopuruaren eta biztanleriaren arteko erlazioa aztertzean, Donostia da ratio onena duen probintziako hiriburua, 21.010 biztanleko talde batekin, Bartzelona baino askoz ere lehenago, talde gehien dituen hiria dena (talde 1 106.409 biztanleko). Bigarren tokian Soria dago, talde bakarra duen arren 40.750 ratioa lortzen baitu. Iruñea sailkapen honetako hirugarren postura igo da aurten, 5 talde eta 41.555 biztanleko ratioarekin

Erkidego mailan ere, Donostia da liderra rankingean, eta Gasteiz (bi talde 128.984 biztanleko 1) eta Bilbo (talde bakarreko ratorik txikiena, 348.089 biztanle talde bakoitzeko) gainditzen ditu.

Talde kopuruaz gain, Donostia ere nabarmentzen da ordezkatuta dagoen kirol modalitateen aniztasunagatik (8 kirol modalitateetan taldeak), eta bigarren postuan dago kategoria horretan, Bartzelonaren atzetik. Gainera, bere taldeen kirol kalitateak eta lorpenek lidergoa indartu dute, Bera Berak, CHH Txuri Urdinek eta Donostia Arraun Lagunak-ek lortutako liga tituluekin, Espainiako Curling Txapelketako brontzezko dominarekin eta IDK eta Bera Beraren Europako sailkapenekin.

Eraitza horiek berretsi egiten dute Donostia erreferente eztabaidaezina dela eliteko emakumeen kirolean, eta berretsi egiten dute lehiaketan kirol bikaintasunarekin eta genero berdintasunarekin duen konpromisoa.